

# BIZKAIKO GR<sup>®</sup> ETA PR<sup>®</sup> BIDEZIDORRAK HOMOLOGATZEKO ARAUAK, IRIZPIDEAK ETA PROTOKOLOA

Bizkaiko Mendizale Federazioak, apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatzeari eta normalizatzeari buruzkoak, ematen dizkion eskumenei jarraikiz, dokumentu honetan jakinarazten ditu bere zuzendaritzarekin batera onartutako homologazio-protokola, irizpideak eta arauak, Bizkaiko lurralde historikoko mendi-ibilien eremuan izango duen jarduera arautuko dutenak.

Bizkaiko Foru aldundiak emandako diru-laguntzarekin egina



<b>Aurkibidea</b>	<b>Orr</b>
1- Apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren laburpena Euskal Autonomia Erkidegoan Mendi-ibiliak antolatzeari eta normalizatzeari buruzkoa.	2
2- BMF-ak mendi ibilien dekretuak ematen dizkien funtzioak betetzeko adostutako irizpideak.	6
3- Homologazio protokoloa.	10
3.1 Homologazio eskaera	11
3.2 Homologazio eskaeraren ebaluazioa	12
3.3 Behin behineko matrikularen esleipena	13
3.4 Proiektua gauzatzea	13
3.5 Homologazioa	14
3.6 Homologazioen eguneraketak	15
4- 2020 tasak	17

# **1. Apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren laburpena Euskal Autonomia Erkidegoan Mendi-ibiliak antolatzeari eta normalizatzeari buruzkoa.**

(Erantsitako dokumentuetan Dekretu osoa)

Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatzeari eta normalizatzeari buruzko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren arabera, lurralde-federazioei dagozkien, dagozkien eremuetan, dekretuaren laburpen honetan zehazten diren eginkizunak:

## ***4. Atala.– Mendi-bideen sailkapena.***

1. Dekretu honetan ezarritakoaren arabera homologatutakoak hartuko dira mendi-bidetzat, eta ez besterik.
2. Mendi-bideak honela sailkatuko dira:
  - a) Mendi-ibili luzeko bideak (ILU): ibilbide edo bitarte luzeak, egun bat baino gehiagotan egiten direnak edo 50 km-tik gorakoak direnak.
  - b) Mendi-ibili laburreko bideak (ILA): egunbetean egin daitezkeen eta 50 km-tik gorakoak ez direnak. Ibilbide hauen helburua, gehienbat, inguru jakinak ezagutzea izan ohi da.
3. Halaber, mendi-bideen artean ondoko mota hauek bereiz daitezke:
  - a) Bide-adarrak: mendi-bide batetik irten eta puntu jakin batera (mendi-tontorra, herria, geltokia, aterpea eta abar) doazen bideak dira.
  - b) Saihesbideak: mendi-bidetik irten eta, beste puntu batean, mendi-bidera itzultzen diren bideak dira.
  - c) Zirkularrak: puntu eta/edo herri berean hasi eta amaitzen diren bideak dira.

### **5.3. Atala:**

Halaber, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Mendizale Federazioei eta Euskal Mendizale Federazioari dagokie, zeini bere eremuaren barruan, ondoko eginkizunak betetzea:

- a) Mendi-bideak homologatzea.
- b) Mendi-bideen artapena eta mentenimendua jagotea.
- c) Toki-gidak egiteko irizpideak ezartzea.
- d) Euskadiko Mendi-bideen Erregistroa kudeatzea.
- e) Mendi-ibiliekin zerikusia duten erakunde estatal zein nazioartekoekin harremanak izatea

### **7. Atala.– Eskabidea.**

1.– Edozein pertsona edo entitate publiko zein pribatu izan daiteke mendi-bide baten sustatzaile.

2.– Mendi-bide bat sustatu nahi duenak eskabidea aurkeztu behar dio dagokion lurraldeko mendizale federazioari, edo, mendi-bidea lurralde historiko bi edo gehiagotan zehar igarotzen bada, Euskal Mendizale Federazioari. Eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek ere aurkeztuko dira:

- a) Proiektua azaltzen duen memoria, non jasoko baitira ondoko alderdi hauek
  - pertsona edo entitate sustatzailearen identifikazioa; entitatea izanez gero, bere ordezkaria zein den adieraziko da; – proposatutako trazaketaren deskripzioa, bideak zeharkatzen dituen lurren titulartasuna eta izaera juridikoa adieraziz;
  - ibilbideko seinaleen ezaugarri teknikoak.
- b) 1/10.000 eskalako oinarri kartografikoa.
- c) Lurren edo azpiegituren titularrek emandako baimenak, baita, oro har, mendi-bidearen trazaketak ukitutako eskubide guztien titularrek emandakoak ere.
- d) Ibilbidearen ezarketa eta mentenimendurako finantzaketa-egitaraua

## **8. Atala.– Homologazioa.**

1.– Eskabidea jasotzen duen federazioak homologatuko ditu mendi-bideak egiteko aurkeztzen diren proiektuak.

Homologazio horrek ondoko alderdi hauek hartuko ditu kontutan:

- a) Euskal Mendizale Federazioak mendi-bideen kalitate eta seinaleztapenaren alorrean ezartzen dituen arauak nola betetzen diren;
- b) Proiektuak bat datozenentz foru erakunde eskudunak mendi-ibilien alorrean ezartzen dituen oinarrizko irizpideekin.

Aurreko idazatietan aipatutako arauak eta irizpideak argitara emango dira, sustatzaileak ezagutzen dituela bermatzeko xedeaz.

2.– Aurkeztutako agiriak aztertutakoan, behin-behineko homologazioa emango du federazioak. Behin-betiko homologazioa emateko, derrigorrezkoa izango da mendi-bidea egiteko proiektuarentzako baimena jasotzea eta mendi-bidea egitean lehen adierazi diren alderdi guztiak betetzen direla egiaztatzea.

3.– Homologazioa ukatzen duen erabakiaren aurka, interesatua administrazio errekurtsu arrunta jar diezaioke baimena emateko eskuduna den foru organoari.

## **9. Atala.– Baimena.**

1.– Mendi-biderako proiektua behin-behinean homologatutakoan, foru organo eskudunari dagokio baimena ematea.

2.– Mendi-bidea lurralde historiko bi edo gehiagotan zehar igarotzen bada, Euskal Mendizale Federazioak foru erakunde eskudun guztiei igorriko die proiektua, atal honetan aurrikusitako ondoretarako.

3.– Baimena emateko, dekretu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatu behar da, eta , bereziki, ondoko alderdi hauek:

- a) federazio eskudunak homologazioa eman duela;
- b) mendi-bidea ezartzeko behar diren baimen guztiak dituela sustatzaileak, eta
- c) mendi-biderako proiektua bat datorrela Euskadiko mendi-bideen sarearen helburuekin.

4.– Euskal Herriko natura babesteko den ekainaren 30eko 16/1994 Legearekin bat etorritz, babestutako naturaguneetan zehar igarotzen diren mendi-bideek nahitaez gorde behar dute halako naturagunea deklaratzeko arauan xedatutakoa, hala nola natur baliabideen antolamendurako planean eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planean xedatutakoa ere.

5.– Atal honetan aipatutako baimena eman ahal izateko, mendi-bidea behar bezala taxutu behar da eta federazio eskudunak behin-betiko homologazioa eman behar du.

## ***17. Atala.– Jagotza.***

1.– Mendi-bidea homologatu duen mendizale federazioari dagokio jagotzea nola betetzen dituzten sustatzaileek dekretu honen ondorioz bereganatutako betebeharrak. Horretarako, egoki diren espediente guztiak instruituko ditu delako mendizale federazioak.

2.– Betebeharren bat ez dela betetzen egiaztatzen bada, emandako homologazioa kenduko du mendizale federazioak.

3.– Homologazioa kenduz gero, horren berri emango zaio foru organo erakundeari, hasiera eman dakion baimena galtzeko administrazio-espedienteari eta ezaba dadin Euskadiko Mendi-bideen Erregistroan egindako inskripzioa.

## **2 BMF-ak mendi ibilien dekretuak ematen dizkien funtzioak betetzeko adostutako irizpideak.**

Aipatutako dekretuaren artikuluetan ezarritakoa betez, BMF-FVMk, bere Mendi Ibilbideen Batzorde Teknikoaren bidez (IBT-CTS), beharrezkotzat jotzen dugu irizpide beraren arabera bateratzea gure lurraldean kokatutako bidezidorren sarea. Bidezidorrak homogeneoki balizatutako bideak dira, batez ere tradizionalak eta landa-ingurunean kokatuak, pertsonak ingurune naturalera hurbiltzeko eta komunikazio-bide tradizionalen sistema berreskuratzeko. Helburu horrekin, Bizkaiko lurralde historikoan bidezidorrak homologatzeko nahitaez bete beharko diren arau hauek ezartzen ditugu:

1.- Bide Lokalak izenarekin balizatutako bidezidorrak (BL-SL, seinaletika berde eta zuriarekin) ibilbide txikiko bidezidor bihurtu behar dira (PR seinaletika hori eta zuriarekin). Prozesu hori datozen lau urteetan egingo da (2013/2017 aldia). Ibilbideko seinaleak aldatzea lehendik dagoen Tokiko Ibilbidea sustatzen duen erakundearen erantzukizuna izango da, eta beharrezko jarduketak egingo ditu, bidezidorra mantentzeko lanak aprobetxatuz. PR berria homologatzeko eskaera homologazio-protokoloaren dokumentu honetan bide berrietarako ezarritako prozedura berari jarraituz egingo da.

2.- Mendi bideen balizajea eta seinaleztapenean erabili beharreko seinaleei buruzko araudiari dagokionez, FEDMEren Ibilbideen Eskuliburuan xedatutakoa hartuko dugu erreferentziatzat (Eranskinak).

### Salbuespenak:

Ez dugu erabiliko FEDMEren eskuliburuan agertzen den norabidea bat-batean aldatzeko seinalea. Norabide-aldaketetan, norabide-aldaketaren seinalea baino ez dugu erabiliko.

Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatzeari eta normalizatzeari buruzko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuan SL ® delakoak (tokiko bidezidorrak) onartzen ez direnez, bidezidor kategoria horren seinaletikari buruzko guztia erabileratik kanpo geratzen da Bizkaian, eta kasu horietan PR ® (Ibilbide Txikia) gisa seinaleztatzen da.

3.- Bidezidorraren hasierako eta amaierako informazio-panelak jartzea eta ondoren mantentzea ezinbesteko baldintza izango da bidezidorraren homologazioa lortzeko. BMF-FVMko zerbitzu teknikoek mantentze-akats larriak dituztela ikusiz gero, erakunde sustatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark ahalik eta lasterren jarri beharko ditu panelak. Betebehar hori bete ezean, homologazioa kentzeko espedientea bideratuko da.

Ibilbidearen hasierako eta amaierako informazio-panelek informazio hau izango dute:

- Bidezidorraren enuntziatu zuzena: matrikula, izena eta bidezidorraren kolorearen zeinu bereizgarria.
- Bidezidorraren interpretazioari eta interesguneei buruzko informazioa: irudiak eta testuak.
- Kartografia: 1: 10.000 eta 1: 20.000 bitarteko eskala
- Altueren eta distantzien profila.
- Bidezidorraren kokapenaren mapa edo krokis orokorra: errepiderako sarbidea, trenak,..
- Kondaira: ohiko zeinuak, mendi-ibiliak...
- MIDE informazioa: bidezidorraren eta bidexkaren balorazio zehatza Interpretazioari buruzko laburpena.  
(MIDE Eskuliburua eta MIDE balorazio-fitxaren adibidea, erantsitako dokumentuetan)
- Logotipoak: erakunde sustatzaileak, BMF-FVM, babesleak, halakorik balego...
- Larrialdietarako telefonoa: 112



- Natura-inguruneko erabilera-, errespetu- eta segurtasun-arauak. Bidezidorra artzaintza-eremutik igarotzen bada eta artzaintzan mastin-txakurrak erabiltzen badira, sasoia eta jarduteko moduari buruzko aholkuak (korrika ez egitea; artaldeak inguratzea; inoiz ez ardien artean gurutzatzea; txakurra eramanez gero, lotzea eta artaldeak saihestea).
- Ingurumena babesteko edozein mota duten eremuek bidezidorraren seinaleketan jasota egon beharko dute (interpretazio-mahaiak, informazio-panelak, etab.).

4.- Mendi-ibilbideen homologazioa eskatzeko BMF-FVMn aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez:

- a- Bide-proiektua justifikatzen duten arrazoiak eta helburuak azaltzea (kulturalak, historikoak, paisaiakoak, kirolekoak, sustapenekoak...)
- b- bidezidorra sustatzen, gauzatzen eta mantentzen duen erakundearen datuak.
- c- Ibilbidearen deskribapenean, dekretuaren artikuluetan adierazitakoaz gain, instalazioaren erabiltzaile potentzialentzat beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko da: guztizko desnibel positiboak eta negatiboak, ibilbidearen profila, egon daitezkeen puntu aipagarriei buruzko xehetasunak (ur-emarien pasabideak, harriak erortzeko esposiziopeko eremuak edo malda handiko mendi-hegalak...), ingurune naturalaren ezaugarriak (flora, fauna...).
- d- 1: 10.000/1: 20.000 oinarri kartografikoan zehatz-mehatz adieraziko da proposatutako ibilbidea. Kartografia formatu inprimatu eta digitalean aurkeztuko da (track gpx formatuan, seinaleen waypointak, panelak eta ibilbideko puntu garrantzitsuak barne). Proiektatutako jarduketa guztiak islatu behar dira.
- e- Finantzaketa eta mantentze-programak proiektua gauzatzeko aurreikusitako epeak jasoko ditu, bai eta mantentze-lanen, aldizkakotasunaren eta funts-horniduraren programaren xehetasunak ere.
- f- Bide-zidorraren "topogida" proiektua formatu digitalean, topogida bidezidorraren erabiltzaile potentzialeari zuzendutako dibulgazio-tresna bat dela ulertuta. Bertan, erabiltzaile potentzialeari bidezidorra segurtasunez eta inguruan eskura dituzten zerbitzu guztiak ezagututa erabili ahal izateko behar den informazio guztia jasoko da (bidezidorraren track-a\*, inguruko kartografia, jatetxeak, ostatuak, garraioa, merkataritza, osasuna, kirol-instalazioak, herrien historiari buruzko

informazioa). Inguruko flora eta fauna, aldez aurretik azterlanik egin bada, eta aipatzeko moduko interes orokorreko beste edozein datu).

\* Eremuan bertan jasotako track-a garbitu eta/edo filtratu egin beharko da, GPS aparatuen sateliteak hartzeko gaitasunaren arabera une edo eremu batzuetan normaltasunez gertatzen diren akatsak zuzentzeko.

- Track-a grabatzeko, GPSa konfiguratuko da track log: auto grabazio-metodoaren bidez, tartearekin: normala edo maizago.
- Track-ak, zuzendu ondoren, **80 puntu/km** izan beharko ditu, gutxi gorabehera.
- Track-ak puntu bakoitzeko altueren balioa izango du.
- GR bidezidorretan, tracka dagozkion etapetan banatuta emango da, ekarpen osoa egin daitekeen ala ez kontuan hartu gabe.
- Rehomologazioprozesua amaitu aurretik, topogidak eta track-ak erabiltzaileen eskura egon beharko dute sustatzailearen webgunean.

g- Erakunde sustatzaileak aukera izango du topogida hori inprimatutako formatuan argitaratzeko. Nolanahi ere, erakunde sustatzaileen eta homologatzaileen (BMF-FVM) logotipoak agertu beharko dira.

h- Lursailen titulartasuna eta izaera juridikoa: bidezidorra igarotzen den lursailen titulartasuna eta izaera juridikoa deskribatuko dira, dagozkien baimenekin.

- Lursail pribatua:
  - Idatziz aurkeztu beharko da lursailaren titulartasuna, bai eta bide-zidorra eta pasabide-baimena aztertzeko eta seinaleztatzeko baimena ere.
- Lursail publikoa:
  - Idatziz aurkeztu beharko da:
    - 1) Bide edo mendi publikoaren titulartasun publikoa bermatzen duen agiria.
    - 2) Lursailaren jabetza publikoaren seinaleztapena jartzeko baimena.
    - 3) Lurzoruaren jabe publikoaren baimena, beharrezko obrak egiteko (sastrakak kentzea, hormak berritzea, pasabideak jartzea, etab.).
    - 4) Bidezidorra igarotzen den beste administrazio batzuen baimen egokiak: kostaldeak, konfederazio hidrografikoak, errepideak, trenbideak, etab.
- Bidezidorra naturagune babestu batetik igarotzen bada, sustatzaileak gune horren kudeatzaileari dagokion baimena eskatu beharko dio (egokitasun-txostena).

### 3 Homologazio protokola:

Mendi-ibiliak antolatzeako dekretuak, 8. artikuluan, nahitaezko baldintza gisa ezartzen du seinaleztatutako bidezidorrak homologatzea, eta mendiko lurralde-federazioen esku uzten du mendi-ibiliak homologatzeko prozesua ezartzeko ardura, bakoitzak bere jardueraren eremuan.

Homologazioa bidezidorren seinaleztapena gauzatzeko prozesua gainbegiratzean datza, erabilitako seinaletikaren uniformetasuna bermatzeko, ingurune naturalaren aurkako erasoak eta inpaktu bisualak minimizatzeko eta instalazio horien erabiltzaile potentzialari eskaintza optimizatzeko. Prozesu horretan, Bidezidorren Bulego Teknikoak bidezidorraren proiektuan aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du eta beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztuko ditu, proiektua behar bezala gauzatzen dela zainduko du bisiten bidez, proiektua behar bezala gauzatzen dela ebaluatuko du gauzapena amaitu ondoren, eta homologazio-aldirako ezarritako mantentze-konpromisoak betetzen direla zainduko du.

BMF-FVMk konpromisoa hartzen du, halaber, Bizkaiko bidezidor balizatuen sarea zabaltzeko, horretarako uneoro webgunean Bizkaiko bidezidorren atal espezifiko bat eguneratuta izango du.

Homologazio prozesua jarraian adierazten diren pausuetan datza:

- 3.1 Homologazio eskaera.
- 3.2 Homologazio eskaeraren ebaluazioa.
- 3.3 Behin behineko matrikula esleitzea.
- 3.4 Proiektua aurrera eramatea.
- 3.5 Homologazioa.
- 3.6 Homologazioaren eguneraketak.

### **3.1 Homologazio eskaera**

Homologazio-prozesua bidezidor baten behin-behineko matrikula esleitzeko eskaerarekin hasten da. Eskaera sustatzaileak egin beharko du, eta bertan honako hauek jasoko dira:

- a- 79/1996 Dekretuaren 7. artikuluan zehaztutako dokumentazioa (dokumentu honen 3. eta 4. orrialdeak)
- b- dokumentu honetako 2. puntuko 4. epigrafean zehaztutako dokumentazioa (9, 10. orrialdeak)
- c- BMF-FVM ibilbideen kontuan behin-behineko matrikulazio-tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

BMF-FVMk sustatzaileari ordainagiri bat emango dio, eta, bertan, jasotako dokumentazioa eta behin-behineko matrikulazio-tasaren ordainagiria (sarrera-data) zehaztuko ditu.

Ikusi eranskinetan:

- Bizkaiko bidezidor bat homologatzeko eskabidean aurkeztu beharreko agirien aurkibidea.
- Behin-behineko matrikula eskatzeko formularioa.
- Erakunde sustatzaile, exekutatzaile eta mantentzailearen datuen formularioa.
- Mantentze-konpromisoaren inprimakia.

### 3.2 Homologazio eskaeraren ebaluazioa.

BMF-FVMn homologazio-eskaera jaso ondoren, Mendi-bideen Batzordeak ibilbide-teknikari homologatzaile bati esleituko dio proiektua. Izendatutako teknikariak txosten bat egingo du mendi-bidearen proiektuaren bideragarritasunari buruz. Txosten horrek proposatuko dio BMF-FVMko Zuzendaritza Batzordeari behin-behineko matrikularen esleipena ematea edo ukatzea, edo, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren aldaketak gomendatzea, aldaketa horiek justifikatuta. BMF-FVMko lehendakaritzak 60 egun naturaleko epean ebatziko du eskaera, dokumentazioa BMF-FVMren erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpena honakoa izan daiteke:

- **Ukatzailea:** BMF-FVMk, txosten teknikoa ikusita, uste badu proiektuak ez dituela betetzen Gr edo Pr bidezidorra egiteko beharrezko baldintzak, proiektuaren akats larriengatik, aurreikusitako ibilbidearen ezaugarriengatik, mendi-ibilietarako interes txikiagatik, eta abar, ez da homologaziorik emango.
- **Ezezkoa:** proiektuan edo aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzemanaz gero, sustatzaileari jakinaraziko zaio, jakinarazpenetik 30 egun naturaleko epean beharrezko zuzenketak aurkez ditzan. BMF-FVMk beste ebazpen bat emango du 30 egun naturaleko epean, sustatzaileak proiektuan proposatutako zuzenketak aurkezten dituenetik zenbatzen hasita.
- **Positiboa:** BMF-FVMk sustatzaileari jakinaraziko dio, eta ebazpenarekin batera, ibilbideko behin-behineko matrikula-zenbakia esleituko zaio proiektuari. Une horretatik aurrera, zenbaki hori dokumentu guztietan agertu beharko da, proiektuaren identifikatzaile gisa.

### 3.3 Behin behineko matrikula esleitzea.

Behin behin-behineko matrikula esleituta, bidezidorra bidezidorren erregistroan inskribatuta geratuko da, ondorio guztietarako, Egikaritze bidean, eta egoera horretan egongo da homologazio-eskabidean emandako dokumentazioan aurreikusitako gauzatze-denboran. BMF-FVMk gauzatzen ari diren bidezidorrei buruzko informazioa sartuko du, homologatuekin batera, bere webgunean.

Sustatzaileak BMF-FVMren behin-behineko matrikula jaso ondoren, sustatzaileak proiektuan aurreikusitako jarduketak hasteko baimena eskatu beharko dio foru-organo eskudunari (apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren 9. artikulua).

### 3.4 Proiektua Aurrera eramatea.

Exekuzio-aldian zehar, erakunde betearazleak BMF-FVMko Mendi Bideen Batzordeari jakinaraziko dizkio gorabehera aipagarri guztiak, bereziki exekuzioan atzerapenak aurreikusten direnean. Egikaritze-aldia luzatzea eskatuz gero, idatziz egingo da eta honako hauek jasoko ditu: luzapen-beharra eragiten duten arrazoiak eta eskatzen den gauzatze-denbora zehazten dituen justifikazio-txostena.

Proiektua gauzatzen den bitartean, erakunde sustatzaileak aurreikusitako jarduketan garapenari, ingurumenari, parke naturalei, jabe partikularren baimenei, udalari, aldundiari eta abarri eragiten dieten araudi guztiak bete beharko ditu.

Erakunde sustatzaileak ezin du ulertu BMF-FVMk ibilbide-instalazioa homologatzeak espazio publikoaren eta pribatuaren erabilera arautzen duten araudiak betetzetik salbuesten duela, dela naturala, landakoa edo hirikoa.

Egikaritze-aldian, BMF-FVMk, apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren 17. artikulua esleitzen dion zaintza-funtzioa betez, gutxienez bi ikuskapen egingo ditu, aldeztatik ikuskapenen sustatzaileari jakinarazita.

Ikuskapen-bisita horietan, erakunde sustatzaileko teknikari arduradun batek lagunduko dio BMF-FVMko Mendi-bideetako teknikariari.

Erakunde sustatzaileak 12 hilabeteko epea izango du proiektua gauzatzeko, federazioak aldeko ebazpena jakinarazten duenetik zenbatzen hasita.

### 3.5 Homologazioa

Proiektua gauzaten amaitu ondoren, erakunde sustatzaileak 60 egun natural izango ditu BMF-FVMri instalazioaren azken ikuskapena idatziz eskatzeko, eta horrela bidezidorra behin betiko homologatzeko.

Behin betiko homologazio-inprimakia eranskinetan.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

- a- Egindako seinaletika, jarduketa, ekipamendu eta abarren memoria zehatza, seinaletika bertikalaren koordenatuak, argazkiak eta deskribapena adierazita.
- b- Homologazio-tasa aplikagarriak ordaindu izanaren egiaztagiria,
- c- Enpresa sustatzaile eta exekutatzaileak izendatutako teknikarien datuak. Proiektuaren ardura duen BMF-FVMko Mendi Bide-teknikaria haiekin harremanetan egongo da homologazio-prozesuan, memoria aztertzean, instalazioa begiz ikuskatzean eta txostena idaztean.
- d- Lurzoruaren kudeaketa egiaztatzen duen agiri ofiziala, apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren 7. artikuluko 2 a eta c letretan ezarritakoaren arabera.
- e- Erakunde sustatzailearen eta mantentzailearen arteko mantentze-konpromisoa egiaztatzen duen dokumentua.

Mantentze-lanen konpromisoaren inprimakia eranskinetan.

Proiektuaren ardura duen BMF-FVMko Mendi-Ibilbideetako teknikariak, gutxienez, oinezko ibilbidearen azterketa osoa egingo du. Beharrezkotzat jotzen badu, erakunde sustatzaileek eta exekutatzaileek izendatutako teknikariei eskatu ahal izango die beharrezkoa den instalazioko tarteen ikusizko ikuskapenean parte hartzeko.

BMF-FVMko bidezidorren teknikariak BMF-FVMko presidenteari bidaliko dizkio bere txostena eta ondorioak, eta hark ebatziko du, homologazioa emanez edo erakunde betearazleari eskatuz txosten teknikoan proposatutako aldaketak egin ditzala, eta gehienez ere exekuzio-denbora ezarriko du.

BMF-FVMk bere irizpen arrazoituaren berri emango die erakunde sustatzaile eta exekutatzaileari, gehienez ere 60 egun naturaleko epean.

Homologazioa 4 urterako da, behin betiko homologazioa ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Epe horretan, erakunde mantentzailea arduratuko da bidezidorraren proiektuan zehaztutako mantentze-lanen programa gauzatzear.

Behin betiko homologazioa indarrean dagoen bitartean, BMF-FVMk 79/1996 Dekretuaren 17. artikulua ematen dizkion zaintza-eginkizunak beteko ditu. Bidezidorra behar bezala mantentzean anomaliak antzemanaz gero, honela jokatu da:

- a- Erakunde mantentzaileei, sustatzaileei eta exekutatzaileei antzemandako gabezien berri ematea.
- b- Erakunde sustatzaileari eta mantentzaileari eskatzea egin beharreko jarduerak egin ditzala, gorabehera horiek konpontzeko, eta horretarako epe bat ezartzea.

BMF-FVMk bidezidor baterako homologazioa baliogabetuko du honako kasu hauetan:

- a- Instalazioa mantentzeko programa modu larrian edo behin eta berriz ez betetzeagatik.
- b- BMF-FVMk proposatutako mantentze-lanak epe barruan eta behar bezala ez egiteagatik, federazioko teknikariek bidezidorra zaintzeko lanean antzemandako akatsak konpontzeko.

### **3.6 Homologazioaren eguneraketak.**

Honela jokatu da:

- 1- BMF-FVMk instalazioaren homologazio-aldia amaitu baino 12 hilabete lehenago jakinaraziko dio erakunde sustatzaile, exekutatzaile eta mantentzaileari.
- 2.- Erakunde sustatzaileak hilabeteko epea izango du, bidezidorraren homologazioaren iraungitze-abisua (1. puntua) jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, BMF-FVMn homologazioa eguneratzeko prozesua hasteko behar den dokumentazioa entregatzeko.
- 3.- Erakunde sustatzailea arduratuko da homologazioa eguneratzeko izapideari ekiteaz.
- 4.- Bidexka baten homologazioa eguneratu nahi duen erakunde sustatzaileak nahitaez bidaliko dio BMF-FVMri bidezidorraren homologazioa eguneratzeko eskaera, honako hauek barne hartuta:



- a - Mantentze-programaren memoria eta azken homologaziotik hona sustatzaile-erakunde mantentzaileak izandako gorabeheren eta egindako jarduketaren xehetasunak.
  - b - Bidezidorraren egoerari buruzko txostena, sustatzailearen aldetik.
  - c - Homologazioa berritzeko eskatzen den aldian (4 urte) instalazioa mantentzeko programa, honako hauek barne hartzen dituena: mantentze-enpresaren datuak, mantentze-lanen programa eta finantzaketa, eta erakunde sustatzailearen eta mantentze-lanen kontratuaren/akordioaren kopia.
  - d - Topogidaren kopia formatu digitalean eta track eguneratua.
  - e - Dagozkion tasak ordaindu izanaren egiaztatzea.
- 5- BMF-FVMn beharrezko dokumentazio guztia jaso ondoren, BMF-FVM honela jardungo da:
- a - Mendi-bideko espedientean erregistratuko du erakunde sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio guztia, eta ordainagiri bat igorriko dio, jasotako informazioa eta tasaren% 30eko ordainagiria jasoko dituena.
  - b - BMF-FVMko bidezidorren teknikariak, homologatutako bidezidorraren arduradun teknikoak, gutxienez ibilbide osoaren bisita bat egingo du oinez, eta bere ondorioen berri emango dio BMF-FVMko presidenteari.
  - c - 2 hilabeteko epean, eskatutako dokumentazio guztia erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, BMF-FVMko presidenteak homologazioa emanaz edo erakunde mantentzaileari txosten teknikoan proposatutako aldaketak egiteko eskatuz ebatziko du, eta gehienez ere 9 hilabeteko epea ezarriko du exekuziorako.
  - d - Mendi-bide-erregistroan eguneratuko du egindako homologazioa 4 urteko aldirako.

Erakunde sustatzaile bat urte desberdinetan homologatutako hainbat bidezidorren arduraduna bada, BMF-FVMk, erakunde sustatzailearekin adostuta, bidezidorren homologazio-aldien beharrezko luzapenak edo murrizketak erraztuko ditu, erakunde sustatzaileak bere jarduketak ahalik eta modu egokienean programatu ditzan. Nolanahi ere, homologazioa eguneratzeko aldiaren luzapena ezin izango da bi urtetik gorakoa izan (4 urte + 2 urteko luzapena).

## 5 2020 Tasak

Behin Behineko matrikulazio tasa ILU,ILA 100 €

ILU homologazio eta eguneratze tarifa 50 €/km

ILA homologazio eta eguneratze tarifa: hurrengo taula aplikatuko da

KILOMETROAK	TASA
<= 10	500 €
10-15	600 €
16-20	700 €
21-25	800 €
26-30	900 €
31-40	1000 €
>41	1200 €